

HITZAURREA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarentzat eta Osakidetzarentzat lehentasunezkoa da minbiziari ekitea, Euskadin heriotza eragiten duen patologia nagusia baita. Egia da 2000.az geroztik Euskadin oro har eta nabarmen handitu dela biziraupen-tasa minbiziaren aurrean, eta Estatukoa eta Europar Batasuneko baina handiagoa dela. Hara hor, bada, Eusko Jaurlaritzak osasun-sistema publikoa, unibertsala eta kalitatezkoari eustearen alde duen konpromiso tinkoaren ondorioa. Euskadiko Onkologia Plana 2018-2023 baliatuta emaitzak hobetzen jarraitu nahi dugu, eta gaixotasun hori duten pertsona guztien premiei erantzuteko estrategia definitua eta egituratua izan, gaur egun eta etorkizunean. Hala, heriotza-tasa gutxitzea eta bizi-kalitatea hobetzea nabarmenduko nituzke planaren helburuen artean.

Kasu askotan, gaixotasun kroniko bilakatu da minbizia, eta gaur egun pazienteen portzentaje handi batek luzaroan bizirautean du gaixotasun hori diagnostikatu ostean. Hori guztia diagnostiko goiztiarrari esker gertatzen da, hain zuzen ere, bai eta terapia pertsonalizatu, tratamendu berri, ikerketa eta Osakidetzako profesionalen etengabe-ko esfortzu eta inplikazioari esker ere. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jarraituko du onkologia-arloko paziente onkologikoari kalitatezko arreta ematen, gaixotasunari modu integralean aurre eginez eta tratamendu pertsonalizatua emanez. Eta, horretarako, prebentzio politikak eta baheketak-programak indartuko ditugu, ikuspegi intersektorial batetik; hala jakatzea berdintasun-baldintzetan osasun- eta ongizate-mailarik handienak lortzeko inbertitzea baita.

Baina, nolana ere, Onkologia Planaren ezaugarri nagusia da, dudarik gabe, paziente duela ardatz, bai eredu asistentzialari, baita berrikuntzari eta ikerkuntzari, eta prebentzio-neurriak ezartzeari dagokienez ere. Izan ere, planaren erdigunea da minbizia duenaren premia guztiak artatzea prozesu osoan zehar, premia horiek fisikoak zein emozionalak izan, eta premia horiei erantzun integrala ematea diziplina askoko ikuspuntu batetik. Hau da, gure proposamena onkologia-arloko laguntza sakontzen jarraitzean datza, ikuspuntu humano batetik betiere, non pazienteak parte hartzen baitu erabakiak hartzen.

Horixe da dokumentuaren funtsa, zeina ez zatekeen posiblea izango Euskadiko Osasun Sektoreko profesionalen aholkurik gabe, haiek baitira egunero konprometitzen eta inplikatzen direnak onkologiako pazienteak eta haien senideak artatzen. Dokumentu honek bat egiten du 2013-2020 Osasun Planaren oinarritzko printzipioekin, eta onkologia-arloko arretako jarduera definitzen du datozen bost urtetotarako, eremu hauek aintzat hartuz: ekintza intersektoriala, asistentzia eredu, informazio-sistemak, medikuntza zehatza eta ikerketa eta berrikuntza.

Jon Darpón Sierra

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko Sailburua